

Koldo Aldalur

KAZETARIA

## Eta horrela

**K**irolean, pribatuaren eta publikoaren arteko borroka gertatzen ari da gaur egun. Federazioak, hainbat kirolatan bederen, indarra eta eragina galtzen ari dira nabarmen, eta arlo pribatuak lekua kendu dio, sinbolikoki besterik ez bada ere, publikoa zenari.

Pare bat adibide, zertaz ari naizen argitzeko: Pilota profesionalean ari diren bi enpresa nagusiek, Aspek eta Asegarcek, egutegiko txoko guztiak torneoz bete dituzte. Uda parteko pilotazaleen zita nagusiak, gutxienez dozena erdi bat bai. Eta, horietaz aparte, txapelketa izena hartu duten torneoak, txapelketa izendatu dituztenak, beste mordo bat: lau koadro eta erdikoak erreinu zaharrean, eta erreinu zaharra zenean, buruz burukoa eta binakakoa. Azken hauetan agertzen da garbier publiko eta pribatuaren arteko kontraesana. Enpresa nagusiek erabakitzen dituzte datak, pilotalekuak eta pilotariak. Zenbat eta zeintzuk, eta jakina, enpresa bati dagokion legez, kirol esparrutik gaindi jartzen dituzte euren helburu ekonomikoak; xoxak, alegia.

Eta horrela, Nagorek edo Otaegik esate baterako, nahiz eta euren maila sarri erakutsi duten kaiola barruan, ezin dituzte, txapela preziatuaren itxaropenean, izen handiagoa eta sarri joko gutxiago dutenen aurka indarrak neurtu. Euren akatsa, enpresa txikietan ari direla. Eta horrela, hogeit hamar pilotari aurkezten dizkigute maila nagusiko buruz burukoan; zaleok jakingo ez bagenu bezala, ez lehen eta ez orain, inoiz ez direla izan lehen mailako hogeit hamar pilotari. Eta horrela, produktua saldu behar delako jakina, ofizialtasuna ematen



DANI BLANCO

diote, eta ondorioz, ematen diogu, pribatua denari. Eta inor gutxi jarri ohi du zalantzan Irujo, Barriola, Titin edo Eulate direla txapeldun ofizialak. Eta horrela, galdera zuzena: esku pilotako enpresa txiki batek, Ordagok, Garfek edo Frontisek kasu, bere pilotariekin torneotxoa antolatuko balu, hango irabazlea ere txapeldun handien zerrenda disdiratsuan, Atano III.aren, Gorostizarekin, Retegitarrekin, Galartzarekin, Gartzia Arinorekin, Azkaraterekin edo Irujorekin batera jarriko al lukete? Ez, jakina.

Hauk, esku pilotari dagozkionak. Baina palaz, zestaz, erremonteaz edo pilotan aritzeko beste edozein modutaz arituko bagina, antzeratsu.

Herri-kirolen munduan ere bada, azken bolada honetan, publiko eta pribatuaren arteko erlazioa islatzen duen aferarik. Txapartegik eta Lasak jokaturiko aizkora eta sega apustuan, federazioak bere arauak ezarri nahi izan ditu eta kontratu pribatua adostu zuten kirolariak ez datoz bat. Federazioaren nahia, belarra ebakitzean txukuntasuna eta honek leharzkeen isuna, kirolariena, eurek mahaian eginiko tratua errespetatua izan dadila. Federazioko epailerik gabeko apustua? Eta zergatik ez?

Beraz, apustua ez dago bakarrik kirolarietara jarritako egunean eta izendatutako plazetan. Apusturik garrantzitsuena bulegoetan dago. Kirolarien iritziak eta erabakiak aintzat hartu eta errespetatuz hartutako erabakiak izango dira federazioen apustua. Mikel Laboak abestian dioen bezala “inor ez inoren menpean, nor bere buruaren jabe”. ■

«  
Apustua ez dago  
bakarrik kirolarietara  
jarritako egunean  
eta izendatutako  
plazetan.  
Apusturik  
garrantzitsuena  
bulegoetan dago  
»

## TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Jendea badabil kaletik anonimatu osoz. Eta bakoitza bere amarena da. Eta ama bakoitzak bere seme-alaba du. Hau horrela izanda, nire buruari galdetzen diot nolatan ama eta seme-alaben artean etena sortzen den; are gehiago haustura bat. Badirudi, horrelako egoeratan, biologiak, besterik gabe, agintzen duela, eta zilbor-hesteko marka, hori baino ez dela: marka bat. Baina haustura fisiko horrek, zilbor-hestea moztearena, badu bere eragina. Batzuek ez dugu onartzen, beste batzuek bai, eta ondorioak oso ezberdinak dira. Akaso ez diogu gehiegi erreparatzen gertakizun horri, gure bizitzako

## Bihozgabea

lehenengo minutu horretan ematen dena, hoztasun handiz eta era mekaniko batean. Beharbada aurrekoari,

bederatz hilabete horietan gertatzen denari, ur epeletan ematen den igaro bide horri, daukan esanahia galduta gabil-tza, eta agian gure nora ezaren adierazpena litzateke. Nora eza, nabarmena, gizakia bakarrik baitago, jendez inguratuta, zarataz, ongizate hutsal batean. Agian barne-izatea da behar duguna. Hau guztia Chantal Maillard irakurtzen ari naizen bitartean barneratzen ari naiz. Berak dio: “uste dut jada bihotzik ez dudala”. Amak semea galdu du, honek bere buruaz beste egin eta gero. ■